ASTEKARIA - 2007ko azaroaren 16an - XII. urtea - Usurbil, 300. zenbakia

www.noaua.com

Noaua!!

ISO 9001 ziurtagiria
Eguneko Zentroarentzat

Larunbatean, Ikasle Egunean,

Ojos de Brujo taldeak sorginduko gaitu

Euskal zeramika
ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK
Alkartasuna Elkartea Baserritar Kooperatiba
alkartasuna@usurbil.com | Ugarte industrialdea 12
943 361 114

www.noaua.com
usurbildarron zerbitzura

Albistea iruditan !

Hau da hau tomate puska

Aurreko batean, onddo erraldoi baten argazkia ekarri zigun irakurle batek. Oraingoan, tomatea da protagonista.

E-posta bidez jaso genuen argazki hau lehengo astean (azaroaren 7an asteazkena). Argazkiarekin batera idatzi hau ere jaso genuen:

"Kaixo lagunok! Gure herriko baratzen onura agertze asmoz, honako argazkitxo hau bidaltzen dizuet. Aitona Jabierrek Gorostitxo inguruko baratzean landatutakoaren ondorioetako bat dugu hau. Agur bero bat!".

Argazkian ikus daitekeen bezala, 1.520 gramoko pisua du bi haurrak eusten ari diren tomateak.

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

ZUBEROAKO IKASTOLEN ALDEKO OTARRA — 8. OR.
OJOS DE BRUJO, IKASLE EGUNEAN — 10. OR.
ELKARTE ARTEKO MUS TXAPELKETA — 12. OR.
ARGAZKI ETA BIDEO LEHIAKETA — 13. OR.
NOAUA! TXIKIN, DENBORAPASAK — 14. OR.
USURBILDARRAK BEHOBIA-DONOSTIAN — 15. OR.
MURAL LEHIAKETA ANTOLATU DA — 17. OR.

Usurbilgo Udala

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

NEREA ZINKUNEGI

Udazkeneko Hortz-Adarra

Intxaurrondoa etxe atarian, lizarrei hostoak dariela bizikletaz bueltatxoa, salda beroa, zeru gorriak, gaztainak sutan, marroi pantonea mendietan, hego haize epela, garo berdeak, saskia bete gibel urdin, ustekabeko izotza, moreak… udazkeneko ortzadarra.

Pixa usaina etxe atarian, Ucini kiratsa dariola bizikletaz bueltatxoa, salda ez dago, sudur gorriak, gaztainaren morkotsa, iazko zapata marroiak, aldarte epela, txiste berdeak, saskia bete urritxa, ustekabeko bisita, itsuak… udazkenekooo…

Gazte bat pixari eutsi ezinik etxe atarian (taberna bost bat metrotara, etxea ere ez du urruti izango, hala ere bertan egin behar), beharko ez lituzkeen sustantziak dituelako botatzen omen du kiratsa Ucinen urtzen den aluminioak, iluntze aldera beti, eta bizikletaren gurpila zulatuta dagoenez kotxean noa, lizarraren hostoak politak dira kristalaren kontra erortzen direnean, mingain urdina duen beldurrak jota zankarrik erosi ez duelako egin gabe geratu da salda, sudur zulo zurituak, ostiral gaueko "kaztaña", marroiak lanean, marroiak etxean, lenteja marroiak eta epelak, bide bazterreko berdeak, saskia bete garo, ezta urritxik ere, ustekabeko ustekabea, "bitxuak" nonahi… udazkeneko hortz-adarra…

Jarraituz gero non bukatuko ote? Berriro hasiko naiz…

Intxaurrondoa etxe atarian, lizarrei hostoak dariela bizikletaz bueltatxoa, salda beroa, zeru gorriak, gaztainak sutan, marroi pantonea mendietan, hego haize epela, garo berdeak, saskia bete gibel urdin, ustekabeko izotza, moreak… udazkeneko ortzadarra.

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - **Nerea Zinkunegi** - Idoia Torregarai - Joxe Piñas - Unai Agirre

Ika-mika!

Eskerrik asko

Azaroaren 1eko Artisautza Azokan ikusi eta dastatu ahal izan genituen herritar talde batek danbolinean erretako gaztainak. Oraingo honetan, eskerrak emateko idatzi nahi dugu tarte honetan.

Zuetako asko ez zineten konturatu akaso baina gaztainen trukean utzi zenuten dirua beste urte batez ere, helburu zehatz baterako bildu zuten. Urtero egin ohi dute eta pasa den urteetan 18/98+ mugimenduaren alde eman zuten moduan, aurten erraustegiaren kontrako mugimenduari eman dizkigute xoxak.

Hemendik eskerrak ematea bakarrik geratzen zaigu, gaztainak erretzen aritu ziren herritarrei eta gaztainak jan eta beraien borondatea bertan utzi zutenei. Denon laguntza beharrezkoa izango da erraustegiaren proiektua bertan behera uzteko baina, argi dugu, proiektu hau guztion laguntzarekin geratuko dugula. Gu gure aldetik, saiatuko gara erraustegiaren kontrako kanpaina eta egitasmoak aurrera ateratzen eta hondakinen arazoari alternatiba zentzudun eta garbiak bultzatzen. Aurrerantzean ere kalean egongo gara panel informatiboekin, gabonetako kontsumo arduratsuaren kanpainarekin, mural bat egiten eta… Mila esker guztioi.

Usurbil Bizirik

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.
Hurrengo alea: azaroak 23. Idatzia ekartzeko azken eguna: azaroak 19.

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186

BORDATXO
edaritegia
PINTXO BEREZIAK
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

URDAINTZI S.L.

Lanuzteei ekitea proposatu du LABek

Michelineko gainontzeko sindikatuek denbora eskatu dute

Astearteko Berria egunkariak zekarren albistea: ELAk, ESKk, UGTk eta CCOOk denbora eskatu diote LABi Michelin lantokian lanuzteak hasi edo ez erabakitzeko. LABen iritziz, ordea, luzamenduetan ari dira, "epe guztiak amaitu eta gero ezer ez egiteko".

URRIAN, LASARTE-ORIAN EGIN ZEN MANIFESTAZIOA.

Joan den ostegunean elkartu zen azkenekoz enpresa batzordea Michelineko zuzendaritzarekin. Eta enpresak "keinu txikiak bakarrik" egin zituela-eta, egun hartan bertan proposatu zien LABek gainerako sindikatuei astean behin lanuzteak egiten hastea. Astelehen honetan elkartu ziren guztiak gaia aztertzeko. Eta "denbora" behar zutela adierazi zioten LABi.

"Ezin dugu ulertu jarrera hori", adierazi du Jon Martin LABek lantegian duen arduradunak. "Erabat proposamen irekia egin dugu, edozein gauza onartzeko prest geunden, baina inork ez du ezer planteatu". Epeak amaitzear daudela gogoratu du. Izan ere, urriaren 3an aurkeztu zion Michelinek administrazioari berregituraketa plana, eta ordutik 30 egun ditu enpresak sindikatuekin negoziatzeko. "Duela hilabete pasatxotik datu guztiak mahai gainean daude, eta orain bakoitzak erabaki behar du zein estrategiarekin jokatu".

Hala, LABek ez du baztertzen berak bakarrik mobilizatzen hastea. "Gauza garrantzitsuak daude jokoan eta ez gaude prest beste sindikatuen luzamenduak onartzeko", esan du Martinek. Haren hitzetan, "zerbait egiteko ordua da, bestela beranduegi izango da".

Michelinek Lasarteko lantokian 367 langile aurrez erretiratu nahi ditu, lana uzteko sariak eman nahi dizkie 50 bati, eta Gasteizen daukan lantegira eraman nahi ditu 156 –aldi baterako 50, eta behin betiko 94–. LABek salatu duenez, 600 lanpostu inguru suntsituko dira eskualdean. Ostiralean elkartuko dira berriro enpresa batzordea eta zuzendaritza. "Ordurako sindikatuek iritzia aldatzea espero dugu", dio Martinek.

BERRIAN, AZAROAREN 13AN

Errausteak alternatibak badituela dio EAE-ANVk; EAk eta EAJ-PNVk San Markosko zabortegia ixtea eskatu dute

Hiri hondakinen gaiak ere, albiste ugari eman ditu egun hauetan. EAE-ANVk alternatiben aldeko apostua berretsi du. EA eta EAJ-PNV alderdiek, San Markosko zabortegia ixtea eskatu dute.

Errauste sistemak alternatibak badituela uste du EAE-ANVk. Hala adierazi zuten lehengo astean Imanol Azpiroz eta Josetxo Ibazeta hautetsiek, Usurbilgo udaletxean eskaini zuten prentsaurrekoan. Lehenik eta behin, prebentzioaren alorrean neurriak hartzearen alde egingo dute alderdiko hautetsiek; besteren artean, kontzientziazio kanpainak sustatzearen, tasak egokitzearen eta egungo bilketa masiboa gaikakoarengatik aldatzearen aldekoak. Beste alde batetik, hainbat gairen berrerabilera bultzatzeko neurriak ere defendatuko dituzte. Eta, azkenik, zaborra sortu eta gero ahalik eta gehiena birziklatzeko ahalegina egitea aipatu zuten, baita zaborraren zati organiko ustelkorrari dagokionez ere.

Bide horri jarraituz, zaborra sortzen den tokitik ahalik eta gertuen tratatzea proposatu zuten. Horretarako, azpiegitura txikiak egitearen alde azaldu ziren EAE-ANVko hautetsiak.

Zabortegia itxi

San Markosko Mankomunitateak zabortegia behin betiko ixteko biderik eman ez izana leporatu diote EAk eta EAJk Mankomunitatearen zuzendaritzari. Bi alderdiek gogor kritikatu dute San Markosko Mankomunitatea zuzentzen duten arduradun politikoen jarrera –EB eta EAE-ANV–. Pasa den astelehenean, Mankomunitateko Batzordea elkartu zen, eta bertan hainbat gai aztertu ez izana gogor gaitzetsi dute. Besteak beste, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoaren eta Mankomunitatearen arteko elkarlanari bidea eman ez izana kritikatu dute, eta "isilpean" utzi izana mankomunitatearen aurrekontuen aurkezpena. "Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoaren finantzaketarako hitzarmenarekin bat egiteari dagozkionak landu gabe utzita, ezinezkoa egiten da San Markos zabortegiaren itxierarako aurreikusitakoak betetzea".

Eli Goikoetxea, musika irakaslea

"Haurrek izugarri gozatzen dute musikarekin"

Haurren abestiak gurasoei erakusteko hiru saioetan lehenengoa eskaini du Eli Goikoetxea musika irakasleak. 0-3 urte arteko haurren gurasoei zuzenduta Oinarriak Eraikiz Guraso Elkarteak antolatu duen ikastaroak hilaren 19an eta 26an izango du jarraipena.

NOAUA! Nondik dator saio hauek antolatzeko asmoa?

Eli Goikoetxea. Lagun bat dut Haur Eskolako hezitzailea dena. Eta hark aipatu zuen, gurasoen artean beharrezkoa ikusten zutela haur abestiak ezagutzea, haiekin parte hartzeko. Baina ez zekizkiten eta beraz, ezin zuten parte hartu. Berak aipatu zidan ia prest egongo nintzen Haur Eskolako gurasoei haur kantak, bere mugimendu eta dantzekin irakasteko.

> ELI GOIKOETXEA
>
> "Asmoa, gurasoek seme alabekin erlazionatzeko beste modu alai, polit eta atsegina izatea da"

N. Kantez gain, baita dantzak ere?

E. G. Dantzan jarriko ditut denak. Umeek ez baitute abesten geldirik, denak dituzte mugimenduak, edo dantzak.

N. Abestien artean, garai batekoak berreskuratuko dituzue?

E. G. Noski, batzuk betikoak dira. Orain atera dituzte bertsio ezberdinak, baina funtsean, garai batetik hona kantak ez dira asko aldatu.

N. Haurrei kantak abesteko ohitura dezente galdu al da?

E. G. Lehen kalean asko abesten zen. Gure garaian kanta asko ez ziren eskolan ikasitakoak, etxean entzundakoak baizik. Baina orain hori ez da ikusten. Etxean ez dago abesteko joera edo ez dira kantak mantentzen, gordetzen.

N. Saio sorta amaitzerako zer da lortu nahi zenukeena?

E. G. Lotarako, jatorduetan engainatzeko erabiltzen diren kantak, edo haiekin jolaserako edo dantza egiteko…

Hainbat momenturako zenbait kanta gurasoek prest izatea. Bide batez, gurasoek seme-alabekin erlazionatzeko beste modu alai, polit eta atsegina izatea. Hori da nik dudan helburua.

N. Haur txikientzat musikak duen onura azpimarratzekoa da?

E. G. Egia da musikak edozein egoera, momentu atseginagoa egiten duela. Ikusten da umeek izugarri gozatzen dutela musikarekin. Haiek konturatzen dira gure tonuaz, goxogoxo abesten ote diegun… Azkenean, musikak jendeak erakartzen du eta komunikaziorako oso ona da.

N. Musikarekin lotura du zure lanak?

E. G. Musika irakaslea naiz, une honetan Lehen Hezkuntzan nago. Lehen esperientzia da gurasoekin, baina berdin jarriko ditut dantzan, mugitzen eta haurrekin egiten dudan saioa egingo dut haiekin. Hori bai, modu kontzentratuagoan. Printzipioz hiru saio jarri ditugu, baina prestatu dudan kantu piloarekin ez dakit nahikoak izango ote diren. Esperientzia gustuko badute, agian beste batzuk ere animatuko dira tailer honetara.

LEHENGO HASTEAN HASI ZEN ELI GOIKOETXEAK ESKAINTZEN DUEN IKASTAROA.

Helduek haurren abestiak ikasteko tailerra, Eli Goikoetxearen eskutik

Eli Goikoetxea irakasleak 0-3 adin tarteko haurrentzako abestiak landuko ditu, gurasoak ere kantatzeko gai izan daitezen.

NORENTZAT: 0-3 adin tarteko haurren gurasoentzat.
NOIZ: azaroaren 19an eta 26an.
NON: Haur Eskolan.
MATRIKULA: 10 euro.
ANTOLATZAILEA: Oinarriak Eraikiz Guraso Elkartea.
INFORMAZIOA: 943 374 061.

ARITZ GORRITI

Eguneko Zentroak ISO 9001 ziurtagiria eskuratu du

Eguneko Zentroan egiten ari diren lanarengatik, ISO-9001 ziurtagiria eman diote GSR enpresari, zerbitzu hau kudeatzen duen enpresari. Eguneko Zentroaren eskaintza kalitatezkoa dela dio ziurtagiri honek. Izendapenaren berri emateko, lunch modukoa antolatu zuten lehengo astean. GSR enpresako arduradunak, langileak eta bertan diren bezeroen familiak elkartzeko aitzakia izan zen. Udal ordezkariak ere han izan ziren. Ziurtagiriaz eta Eguneko Zentroaren martxaz hitz egiteko, GSR enpresako Itziar Zubiri izan dugu solaskide.

Azaroaren 7an, lunch batekin ospatu zuten ISO 9001 izendapena.

NOAUA! ISO 9001 delako ziurtagiria jaso du Eguneko Zentroak. Zer suposatzen du horrelako sari bat eskuratzeak?

Itziar Zubiri. Gauzak ondo egiten diren seinale da ziurtagiria. Guk bagenekien gauzak ondo egiten zirela, baina izendapen hau Eguneko Zentroan egiten den lana ona dela esatera dator.

N. Zenbat bezero daude orain Eguneko Zentroan? Eta zenbat dira langileak?

I. Z. Bi dira Eguneko Zentroan lanean aritzen direnak. Eta bezeroak, orain-txe bertan, 11 dira egunero zentrora datozen herritarrak.

N. Laster, asteburuetan ere zabalduko dituzue ateak, ezta?

I. Z. Bai, hala da. Orain astelehenetik ostiralera irekitzen dugu Eguneko Zentroa, baina epe laburrean asteburuetan ere irekiko dugu. Azaroan hastekoak ginen, baina urrats juridiko batzuk eman behar dira oraindik. Beraz, okerrik ez bada, urtarrilean hasiko gara asteburuetan eta jai egunetan zabaltzen.

N. Asteburuetan zabaltzearena, zuen ekimena izan da ala bezeroen eskaera?

I. Z. Urtero, gure bezeroen artean inkesta moduko bat egiten dugu. Jendeak gure lana nola baloratzen duen neurtzeko baliagarri izaten da. Inkesta horretan, astebukaeratan irekitzeko proposamena egin zitzaigun. Udal teknikariekin eta bezeroen familiekin bilera bat egin genuen eta astebukaeratan irekitzeko tramitazioak jarri genituen martxan. Orain, denbora kontua da baina urtarrilerako nik uste dut posible izango dela.

Dena den, astebukaeratan, gehienez 6 pertsona hartuko genituzke. Hori baita egin zaigun eskaera.

N. Langile gehiago hartu beharko dituzue.

I. Z. Orain bi langile eta terapeuta bat ari dira lanean (azken hau, astean zazpi bat orduz). Eta ni neu hau guztia koordinatzen. Asteburu eta jaiegunetako ordutegia osatzeko beste langile bat hartuko dugu.

N. 12 dira gehienez Eguneko Zentroak jaso ditzakeen herritarrak. Ez al da kopuru mugatua?

I. Z. Gaur egun, 11 dira Eguneko Zentrora datozenak. Baina lau urteotan mugimendu asko egon da. Zazpi baja izan dira. Noizbait itxaron zerrendarik ere osatu behar izan da. Baina ez da ohikoena. Nire ustez, orain egiten den eskaintza egokia da.

"Ematen den zerbitzua oso ona da"

GRS enpresako kide da Itziar Zubiri. Bera da Kalezarren dagoen Eguneko Zentroa koordinatzeaz arduratzen dena. Adierazi digunez, "oso kontentu gaude Eguneko Zentro honetan egiten den lanarekin. Ematen den zerbitzua oso ona da eta bertan ditugun aiton-amonak oso ondo aurkitzen dira hemen. Familiarrak ere pozik daudela esango nuke". Horretaz, aparte, herrian harrera ona izan du zentroak eta hori ere pozgarria da Itziar Zubirirentzat.

Imanol Ubeda

Zuberoako ikastolak laguntzeko, bertako produktuez osatutako otarrak eskuragarri

Eguberrietarako hilabete falta dela eskaintza ezin hobea egin berri dute Zuberoatik; Sohütako Eperra eta Alozeko Basaürüko ikastolak laguntzeko kanpainan parte hartzea, bertako produktuez osatutako otarrak erosita. Hilabete amaierara arte eska daitezke Txiribogan eta Txirristran. Gabonetan sabela goxatzeko eta bide batez, Zuberoako ikastola laguntzeko aukera paregabea da honakoa.

HERRITAR HAUEK BIDERATUKO DUTE ZUBEROAKO IKASTOLEN ALDEKO KANPAINA.

Urte amaierara hurbiltzen ari gara, eta bat baino gehiago datozen gabonetarako zer menu prestatu pentsatzen hasiko da laster. Produktu aukera zabala da, baina guztiak ez dira Zuberoatik datorkigun eskaintzaren parekoak. Eguberri hauetan otordu mahaian bertako produktuak dastatzeko modua izango da. Bai behintzat, Nafartarrak Kultur Taldearen laguntzaz eskuragarri dauden otarrak erosten dituenak. Zuberoako ikastoletako guraso taldeek haien eskuz egindako produktuez otarrak osatu dituzte.

> **EGOERA ZAILEAN**
>
> "Zuberoan bi ikastola besterik ez daude: Sohütako Eperra eta Alozeko Basaürü, eta laguntza beharrean dira"

Bertako ikastolei primeran datorkie otar hauen bidez jasotako laguntza, egunerokotasunean sortzen diren gastuei aurre egin beharra dago eta. Une honetan, Zuberoan bi ikastola besterik ez daude; Sohütako Eperra eta Alozeko Basaürüko ikastolak. Eta laguntza beharrean dira.

Herrian, hirugarren urtez Nafartarrak Kultur Taldeak deialdia egin berri du. Eta zabaltzen doa pixkanaka Zuberoako ikastolei bultzada eman asmoz, urte garai honetan abian jarri ohi den ekimena. Bizkaian ekin zioten eta pixkanaka geografikoki hedatuz joan da. Handik Gipuzkoara zabaldu zen; besteak beste, Usurbila.

Gazta, patea, patxarana...

Zuberotarrek bertan egindako produktuez bi otarre osatu dituzte. Horietako bat, Ahusqui izeneko otarrea dugu. Kilo bateko ardi gazta, 500 gramo ezti, ahate gibelezko 200 gramo pate eta bizkotxo poltsa batez osatua dago. Irati izeneko otarrean berriz, aipatutako produktuei, 1,70 litro patxaran botila gaineratu diote. Azken otar hau 48 euroren truke eskura daiteke. Ahusqui izenekoa, 36 euroren truke. Produktu eder hauek dastatzera deitzen dute zuberotarrek: "Zuen parte hartzean bermatzen gara, eta esperantza dugu hemengo produktuak asko gozatuko dituzuela".

Txirristran eta Txiribogan eskuragarri

Otarrak eskuratzeko herriko bi tabernetara jo besterik ez dago. Txiribogan edo Txirristran norbere izen abizenak eta telefono zenbaki bat utzita, kanpainan parte hartu eta otarra eskura daiteke. Horretarako, hilabetea bukatu arteko epea dago.

ARITZ GORRITI

Datorren asteazkenean, Sutegin, transgenikoei buruzko hitzaldi interesgarria

Sektore ugari eta, batez ere, ekoizpen biologikoan diharduten etik transgenikoen ondorioak garbi aztertu arte mota horretako hazien erabilpena debekatzea aspaldi ari dira eskatzen. Baina hazigintzako enpresa multinazional (Monsanto, Pioneer, Limagrain, Syngenta…) boteretsuen interesek gaina hartu dute eta hainbat gobernuk erabilpena legez ahalbidetu dute. Datorren asteazkenean, gai honi buruzko hitzaldia eskainiko dute nekazari batek eta EHNE sindikatuko ordezkari batek. Aitzagak antolatu duen hitzaldia arratsaldeko 19:30ean hasiko da.

Europar Batasunak hazi transgenikoak erabiltzea baimendu duenetik, aurten, lehen aldiz erein da arto transgenikoa Ipar Euskal Herrian.

Ekoizle biologikoak, kezkatuta

Nafarroan ere badira zenbait eremu hazi mota horrekin ereindakoak. Momentuz, biologia, nekazaritza, ekologia eta kontsumitzaile esparruen aldetik transgenikoen erabileraz planteaturiko arrisku eta zalantzak direla medio, Erkidego Autonomoan halako moratoria aplikatzen ari da eta ez da hazi transgenikorik erabiltzen.

Produktu biologikoak ekoizten dutenek, ordea, oso kezkatuta daude, beraiek egin dituzten azterketek transgenikoek beste landareak kutsatzen dituztela frogatu baitute. Ez hori bakarrik, erleen polena bera kutsatu egiten dela egiaztatu dute.

Baina, zer demontre dira horrenbeste entzuten diren transgenikoak? Zer eragin dute nekazaritzan eta elikagaietan? Kaltegarriak al dira? Nola jakin daiteke jaten dugun tomatea edo erabiltzen dugun irina transgenikoa den ala ez? Zergatik herrialde batzuetan onartzen dira eta besteetan arbuiatu? Egia al da soluzioa izan daitekeela goseteak jota dauden herrialdetarako?

HITZALDI PRAKTIKOA

"Landare bat transgenikoa den ala ez jakiteko test bat egingo dute zuzenean, Sutegiko hitzaldian"

Hainbat galdera zintzilik, erantzun zehatzik gabe… edo, behar bada, erantzun oso argia dutenak.



HITZALDIAN NEKAZARI BATEK ETA EHNEko ORDEZKARI BATEK HARTUKO DUTE PARTE.

Kezka horiek argitzen saiatuko dira datorren asteazkenean Sutegin eskainiko den hitzaldian. Aitzaga elkarteak antolatu duen hitzaldian bi hizlarik hartuko dute parte:

-Jon Harluxet Bio-Akitaniako presidentea, Biharko Lurraren Elkarteko partaidea eta nekazaria Duzunaritzen (Nafarroa Behea).

-Enrike Gisasola biologoa eta artzaina. EHNEko ordezkaria.

Gainera, landare bat transgenikoa den ala ez jakiteko egiten duten test bat ere egingo dute zuzenean, datorren asteko hitzaldian.

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN·ALDIZKARIA ON LINE·INKESTAK·FORUAK·POSTA
www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

JOSUE ARANZAZISTROKI
IGELTSERITZA eta PINTURA
Juan Jose enea, 6 Kalezar
Telf: 606 37 21 05

ANTXETA
taberna-jatetxea
ogitartekoak
egunerako menua
plater konbinatuak
EGUZKITZA, 4 USURBIL - 943 370 344

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia, 2 1.C4 20170
Tlf 943 37 08 78 USURBIL

Larunbat honetan, Ikasle Festa

Ikasleen Nazioarteko Eguna izango da azaroaren 17koa. Egun honen bueltan, euskal ikasleen topaketa antolatu ohi du Ikasle Abertzaleakek. Aspaldiko partez, Usurbilen ospatuko da Ikasle Eguna. Egunez, hainbat ekitaldi egingo dira eta, gauez, kontzertua: Latzen, Oliba Gorriak, Delorean, Ojos de Brujo eta Edan taldeek alaituko dute ikasleen eguna. Larunbat honetan, beraz, ikasleak izango dira nagusi.

LEHENGO ASTEAN, GRAMMY LATINO BAT ESKURATU ZUEN OJOS DE BRUJO TALDEAK, URTEKO FLAMENKO DISKO ONENARENGATIK.

Jendetza espero da. Jaialdira datozen taldeek oihartzun handia dutelako eta, bestela ere, euskal ikasleen topaketa honek lagun asko erakarri ohi dituelako.

Ojos de Brujo Bartzelonako Raval auzoan sortutako taldea da. Flamenkoarekin harremanatu izan duten arren, iturri askotatik edaten duen taldea da. Hala ere, zuzenekoa da talde honen bereizgarri nagusia: askorentzat, ez dauka parerik. Hamaika musikari biltzen dira eskenatokiaren gainean. Dirudienez, zuzeneko eskaintzaren bikaintasuna ahoz aho pasa da entzuleen artean eta jarraitzaile ugari bildu du oso denbora gutxian.

Bitxia da Ojos de Brujoren sorrera eta bilakaera. Lagun talde gisa hasi ziren, Bartzelona aldeko taberna ezberdinetan elkartu, eta ordu txikiak arte jotzen. Antza denez, Ojos de Brujorekin hasi baino lehen, nork bere taldea zuen. Talde hau esperimentatzeko eta gustuko zuten musika egiteko txokoa zen, batik bat. "Denborak aurrera egin ahala konturatu ginen merezi zuela ordura arte bizitako guztia disko batean jasotzea", zioen azken diskoaren aurkezpenean taldeko gitarjoleak. Eta hala atera zuten lehen lana, "Vengue" izenekoa, 2000. urtean. Diskoak talde izaera eman zion Ojos de Brujori.

2002an, "Bari" diskoa plazaratu zuten. Disko horrek munduko hainbat herritara eraman zituen: Frantzia, Alemania, AEB, Japonia... Lau urte eman zituzten ia herririk herri jotzen. Eta iaz plazaratu zuten "Techarí" diskoa, larunbat honetan Usurbilen zuzenean aurkeztuko duten lana da.

FRONTOIAN KONTZERTUA

"Ojos de Brujorekin batera beste lau talde arituko dira larunbatean: Latzen, Delorean, Oliba Gorriak eta Edan"

Latzenen itzulera

Ojos de Brujorekin batera, beste lau talde izango dira Ikasle Eguneko kontzertuan: Latzen (duela 10 urte desagertu zen baina berriz itzuli dira), Delorean (zarauztarrak, zuzeneko ikusgarria dute), Oliba Gorriak eta Edan (Ikasle Eguneko abestia egin duen taldea).

Ikasle Eguna´07 egitaraua

- 11:00 mahainguruak.
- 13:30 Plenarioa.
- 14:30 Bertso bazkaria.
- 17:00 Hitzaldiak, jolasak, erakusketak...
- 19:30 Manifestazioa.
- 20:30 Ekitaldi politikoa.

Eta gauez, ondoren kontzertuak: Latzen, Oliba Gorriak, Delorean, Ojos de Brujo eta bukatzeko, erromeria Edan taldearekin. (Kontzerturako sarrerak Irratin salgai).

ZUZENEKO IKUSGARRIA DU DELOREAN ZARAUZTAR TALDEAK.

Panpinak eta aktoreak elkarrekin ostiral honetako antzerki saioan

Lakrikun taldearen antzerki saioa ikusi gabe geratu ginen. Tira, antzerki zaleok beste aukera bat izango dugu ostiral honetan. Deja Bu talde oreretarrak "Gizona ez da txoria" antzezlana eskainiko du Sutegin, gaueko 22:30ean hasita.

Albiste honen izenburuak dioen bezala, txotxongiloek eta aktoreek elkarrekin bat egingo dute ostiraleko antzerki saio honetan. Edukiari dagokionez, Bosniatik Euskal Herrira etorri den emakume baten istorioa kontatuko zaigu. Gerrak suntsitutako herritik ihesi egin ondoren, Selmak Simon aurkituko du. Simonek bizitza osoa baserrian eman du, baina azpiegitura erraldoi bat dela medio, hiriko pisu batera bidali dute. Egoera horretan egingo dute bat bi pertsonaiek, grina ezkutu batek batzen dituelarik: atzean utzi duten mundura hegan itzultzekoa.

ANTZERKIA: 'Covek nije tika: Gizona ez da txoria', Deja Bu taldearen eskutik.
LEKUA: Sutegiko auditorioa.
NOIZ: Azaroak 16 ostirala, 22:30h.
SARRERA: 5 euro (Txirristran eta NOAUA! egoitzan). Bazkideek, 3 eurotan baina aldez aurretik eta NOAUA!ko egoitzan.

ANTZEZLAN HONEK ACT SARIA JASO ZUEN UDABERRIAN. ANTZEZLEAK ETA TXOTXONGILOAK ELKARREKIN IKUSIKO DITUGU SUTEGIKO TAULA GAINEAN.

Jende gutxi bildu zen Goseren kontzertuan

Pasa den azaroaren 9an Sutegira hurbildu zirenek, kontzertu zirikatzaile eta doinu nahasketa bikainez gozatu ahal izan zuten. Horretarako eta gehiagorako eman baitzuen Goseren emanaldiak. Trikitia nahi bezala astindu zuten, beste musika joera batzuekin nahastuta. Abesti eta taularatze probokatzailea izan zen eskaini zutena. Originala zalantzarik gabe.

Emanaldia ikustera hurbildu zirenak beste abesti baten gogoz geratu ziren. Eskatu gabe ez ziren geratu, baina zalantzen ostean, azkenean ez ziren berriz taula gainera igo. Ia beste batean itzuli eta publikoarekin duten "zorra" kentzen duten.

Lakrikunen antzerki saioa, bertan behera

Azaroaren 8an hastekoa zen Kultur Hamabostaldia. Lakrikun antzerki taldearen saioa, ordea, bertan behera utzi behar izan zen. Bezperan, antzezle baten senitartekoa hil egin zen eta horregatik ez zen antzerki saiorik izan.

Elkarte arteko X. Mus Txapelketa, hastear

Mus txapelketa batek lotuko ditu herriko bederatzi elkarte datozen asteetan. Jada hamargarren ediziora ailegatu da bateko eta besteko bazkideak elkarren arteko lehian jartzen dituen ekimena. Aurtengoa Andatzperi antolatzea egokitu zaio. Elkarteetako mus zaleek hitzordua jarria dute beraz.

Asteburu honetatik aurrera karta jokoa nagusituko da herriko bederatzi elkarteetan. Andatzpek, Eguzkik, Ibai Ondok, Peña Pagolak, Aitzagak, Yoko-Garbik, Aginagak, Erroizpek eta Mahaspildegik elkarte arteko mus txapelketan parte hartuko dute. Urtez urte ekimena antolatzeko ardura, elkarteen artean txandakatzen dute. Hamargarreneko xehetasunak lotzeaz Andazpe arduratu da.

ANDATZPEK, EGUZKIK, IBAI ONDOK, PEÑA PAGOLAK, AITZAGAK, YOKO-GARBIK, AGINAGAK, ERROIZPEK ETA MAHASPILDEGIK HARTUKO DUTE PARTE.

SARI IKARAGARRIAK

"Partehartzaileari dirurik eskatzen ez zaion mus txapelketa gutxitako bat da. Eta sari ikaragarriak daude"

Ekimenean parte hartzeko bete beharreko baldintza bakarra, lehen aipatutako elkarteren bateko bazkide izatea da. Elkarteen arteko lehia izango da eta inor gutxi geldituko da esku hutsik. "Txapelketa honek duen gauzarik itzelena, sariak dira. Parte hartzen dutenak afari batekin geratzen dira", adierazi dute antolatzaileek. Herriko jatetxe eta tabernatan afari goxoak mus txapelketan parte hartzeagatik. Baita txapelak, trofeoak, ardo edo xanpaina,... "Parte hartzaileari dirurik eskatzen ez zaion mus txapelketa gutxitako bat da. Eta sari ikaragarriak daude", adierazi dute antolatzaileek. Biltokien arteko elkarlanaz aurrera atera da ekimena.

Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete herriko hainbat jatetxe eta tabernei, iaz ere debalde eman baitzituzten muslarientzako afariak. Emandako laguntza eskertu nahi dute.

Finala, abenduaren 15ean

Lehen fasea elkarte barruan, sozietate bereko bazkideen artean jokatuko da. Gune bakoitzean, bi bikote onenek final handirako txartela eskuratuko dute eta abenduaren 15ean larunbatarekin elkartuko dira honenbestez, muslari onenak. 17:00etatik aurrera, bederatzi elkarteetatik finalera ailegatu diren hemezortzi bikoteren txanda izango da.

4 errege, 4 ustel, 4 hamarreko

